



LUIS JAUREGIALTZO / FOKU



+

**SERIEA**

**Izurriaren kantoietan (III) • Jon Mirena Landa eta Izaskun Andonegi.** Landak COVID-19aren izurriaren asterik zailenetan galdu zuen ama, eta agerian utzi nahi izan du bakardadean jazo diren heriotza horien bidegabekeria. Andonegik min antzekoa dutenei abaroa ematen dihardu: neurriak eskatu ditu.

**«Agur esateko eskubidea ez da bigarren mailako kontua»**

**Arantxa Iraola**

Jon Mirena Landa legelariak (Bilbo, 1968) oroimenean iltzatuta ditu, ia orduz ordu, amaren azken egunak, harengandik nahi baino aparteago egon bazen ere. Izurria heldu berria zen egun nahasi haieran izan zen: iktus baten ondorioz, ama erietxean zuten orduan, eta hura ondoan edukitze-tik «arrastoa» galtzera eraman zituen epidemiak. Halaxe hil zen: etxeokak ondoan izan gabe. Bakartze giro hartan, hileta ere ezin izan zuten egin, eta orain egitekoak dira. Aste batzuen buruan, Landak iritzi artikulua batean adierazi zuen zer bidegabekeria egon den birusa saihesteko neurrien zurrunaren ondorioz bakarrik hil diren pertsonen heriotzen atzean: «COVID-19aren krisialdiaren zurrunbiloan, isolamenduaren inertiak aurretik eraman du agur esateko eskubidea». Ondo ulertzen du ohartarazpen horren funtsa Izaskun Andonegi zaintza aringarrietako erizainak (Donostia, 1967); horren atzean dagoen oinazea ere bai. Aditua da dolu eta trauma prozesuetan, eta

izurriak ekarririk neurriek prozesu asko zaildu eta korapilatu dituztela onartu du. Ez du aurrez inoiz Landarekin hitz egin. Ezer baino lehen, «besarkada» bat helarazi dio, *online* bada ere. Eskertu ere egin dio gaiaz publikoki aritzea: «Ez da erraza».

**Izurriaren hasierak hauskortasun egoera batean harrapatu zuen zuen ama, Jon Mirena...**

**JON MIRENA LANDA (J.M.L.):** Bai, bi iktus izan zituen. Hala ere, aurrera ateratu zuten. Pixkanaka aurrera ari zen: errehabilitazio bidean. Basurtuko erietxetik ateratu eta Gortizera eramatea zen asmoa, han errehabilitazioa egiteko. Dena geldiarazi zuten, ordea, bere aldamenen zegoen pazientek COVID-19an positibo eman zuelako. Nire amak ere eman zuen positibo, eta orduan galdu egin genuen amaren arrastoa. Azken goiz bat egin ahal izan genuen berarekin, eta gero geuk ere joan egin behar izan genuen etxera, bakartuta. Horrek eragin du egonezina, urruntasuna.

**IZASKUN ANDONEGI (I.A.):** Komentatu duzu, Jon, amaren arrastoa galdu zenutela...





JON URBE / FOKU

**J.M.L.:** Dena zegoen primeran amak positibo eman zuen arte. Positibo eman zuenean, sartu zuten gela batean, hor zegoen, eta inor ere ez zen sartzen. Eta une haietan garbi zegoen ez zegoela protokolo garbi bat han. Esaterako, proba egin zioten babestuta, baina gero inor ez zegoen han babestuta. Orduan, ez genekien zer egin: «Etxera joan behar dugu? Sartu behar dugu? Nor sartuko ote da?»». Azkenean, ni sartu nintzen; sartu nintzen, nolabait ere, protokoloaren kontra, eta egon nintzen goiz osoan: gauzak normalizatu ziren arte. Gero ja sartzen hasi ziren erizainak, haiek ere babestuta, eta orduan gu –hiru anaia gara– bidali gintuzten. Esan ziguten lasai joateko, haien eskuetan gelditzen zela; ordutik amaren jarraipena egin behar izan genuen etxetik. Aurrena pabiloi batean egon zen, gero beste batean, ondoren Santa Marina erietxean bukatu zuen... Larri-min handia zen; deitzen baduzu esaten dizute, ez dizute esaten, ez dago erarik kontaktatzeko... Lau egunean joan zen, baina amaigabea izan zen niretzat: oso luzea.

#### **COVID-19ak, beraz, ekarri zuen aldaketa erabatekoa...**

**J.M.L.:** Alde batetik, nik ez dut kritikatu nahi sistema: simplegia litzateke. Bertan egon ginenean, primeran tratatu gintuzten. Eta uste dut borondate on osoz esan zigutela: «Segi etxera. Batetik, zuek isolamenduan egon behar duzuelako. Gu arduratuko gara». Alde horretatik, uste dut ondo jardun zutela. Gertatzen dena da ez zegoela pentsatuta, oro har, horrek esan nahi duela zuk galtzen duzula kontaktua. Eta nik etxean nengoela esaten nuen: «Joan behar dut? Joaten banaiz kutsatu naiteke, eta ekarri dezaket gaitza etxera?». Eta, aldi berean, haiek ere lanean daude, eta ikaragarriko olatua izan zen. Dena hasi zen ueña zen; gainezka zegoen, eta ez duzu trabarik egin nahi, baina zure ama dago tartean. Azkenean, lortu genuen komunikazioa izatea, baina ez zegoen protokolizatuta horretarako bidea. Horri begiratu beharko litzaiotke hurrengo baterako. Ez dut esaten haiek gaizki aritu zirenik, baina bizitzaren amaierako eskubideak eta agur esateko es-

kubidea ez dira bigarren mailako kontuak: lekua egin behar zaie. Hori protokoloetan txertatu behar da. Gainera, egoera horietan, behin esaten dizutenarekin ez da nahikoa. Nire burutik pasatu zen, esaterako, konfinamendua apur-tu, eta amaren ondora joatea.

**I.A.:** Noski, nola ez. Nola ez.

#### **Hilabeteotan izan diren arazoan adibide argi bat Jon Mirenaren bizipena. Halako asko ikusten ari zarete dolu prozesuetan laguntzen ari zareten adituak?**

**I.A.:** Bai. Ikusten ari gara kasu oso antzekoak. Batez ere konfinamenduaren hasierakoak, zeinean izugarriko ezjakintasuna baitzegoen. Profesionalak ere laguntzen aritu naiz prozesuan, eta haiek ere ez zekiten nola jokatu. Gero, kanpotik zetozen arauak politikariek hartutakoak ziren, ez ziren osasun arloko profesionalak hartuak. Osasun arloko profesionalak balira, bizitzaren amaiera erabaki horiek seguruenera beste modu batean hartuko ziren. Ulertu egin behar da; larrialdia oso handia izan da, baina nahi gabeko ondorio handiak utzi ditu. Bizitza bukaerako zenbait eskubide ez dira kontuan hartu, batez ere behar emozionalak, psikologikoak eta espiritualak. Hala ere, esan nahi dut osasun arloko profesionalak, oro har, oheburuetan egon diren horiek, hilzorian zeuden pertsona horien familia bihurtu zirela puntu kritiko batean: humanizazio horren eskuak izan ziren. Horren lekukoa izan naiz ni. Baina orain dola horien liseriketa egin behar dugu.

**J.M.L.:** Hor gako da ziurtasuna behar duzula. Komunikazio kanal bat ezarrita egotea eta norbaitek esatea: «Joan etxera, eta hitz egiteko aukera izango dugu arratsaldeko zortzietan». Aldiz, esaten badi-zute lasai joateko, baina gero ibili behar baduzu nora deitu, nora ez deitu, zoratu egiten zara.

**I.A.:** Jonek esan duen hitz gakoak da *ziurtasuna*. Gizaikiok behar dugu segurtasuna gure bizitzan zehar, eta, halako momentu zail batean, pertsona maite baten arrastoa galdu duzunean, ildo bat ezarri behar da esateko nolako kontaktua mantendu behar den.

**Jendea sendatzeko asmoz hartutako erabakiak izan ziren, birusari hesia jartzeko...**  
**I.A.:** Bai, larrialdi horretan garrantzitsuena izan zen bizitzak aurrera ateratzea. Baina beti iristen da une bat zeinean ezin baita perso-

na bat sendatu. Prozesu guztietan badago puntu bat non pertsona begiratu behar den, ez gaitza. Pertsona osotasunean begiratu behar da, haren sendia ere bai, eta ezin dira ahantzi beste beharrak. Ez dago aitzakiarik.

#### **Baina beldurra zegoen...**

**I.A.:** Bai, beldurra zegoen, kaosa, ados nago. Baina beste neurri batzuekin egongo zen era beste modu batean jarduteko, eta ez da egin. Hiltzera doan pertsonaren ondoan egon da profesional bat, egon da pertsona bat. Zer alde legoke, esaterako, pertsona hori egon beharrean Jon Mirena egotean amaren ondoan? Edo beste senide bat... Eta hori, beharra baldin badago. Izan ere, batzuetan familiek ez dute ondoan egon nahi. Badakit oso polemikoa dela hori, baina beti errespetatu behar dira familien eta hiltzera doan pertsona horren beharrak. Eta aukera eman behar da. Ez da gauza bera aukera ematea edo ez ematea. Gero bakoitzak erabaki du: hor dago askatasuna.

#### **Dolua ondo bideratze aldera, kontu horiek guztiak oso garrantzitsuak direla nabarmendu ohi duzue sarri askotan arloko profesionalak. Gainerakoan, pisu-suagoga da prozesua, ezta?**

**J.M.L.:** Bai, hau guztia landu egin behar duzu. Egoera oso arraroa izan da. Bakartuta geunden etxean, eta mundu guztia zegoen halako egoera arraro batean. Guk hileta, esaterako, orain egingo dugu. Une hartan informazioa falta zen hori egiteko moduen inguruan ere, eta laga egin genuen. Eta falta zaizkizu euskarriak dolua egiteko. Ordezkatu egin behar



#### **Amaren jarraipena etxetik egin behar izan genuen. Lau egunean joan zen, baina niretzat amaigabea izan zen»**

Jon Mirna Landá

#### **«Beldurra zegoen, kaosa. Baina beste neurri batzuekin egongo zen beste modu batean jarduteko era»**

Izaskun Andonegi

dituzu; nik ordezkatu nituen, adibidez, idazten. Gero, nire ama oso positiboa zen. Aspalditik esaten zidan aitarekin joan nahi zuela. Guk heriotzaz hitz egin dugu etxean, eta gauza positibo horietara jotzen duzu. Baina zailagoa izan da; euskarriak falta zaizkizu.

**Distantziei eutsi beharrak, oro har, dolu prozesuak zaildu egin**

#### **ditu. Besarkadarik gabeko doluak dira, agurririk gabekoak...**

**I.A.:** Bai, batzuek esaten dute dolua diferituan bizitzen ari direla. Erritualek badute beren pisua eta esanahi antropologikoa. Adibidez, Jonek esan du orain egingo dutela agur kolektiboa... Baina agurra ekintza intimo bat ere bada. Jonek bere prozesu propioa egin beharko du amarekin, eta bere anaiek ere bai: bakoitzak berea. Prozesu horiek bakarrik ere egin behar ditugu; gero partekatuak gertatutakoari zentzua ematen laguntzen digu, eta errealtatean horrekin topo egiten.

**J.M.L.:** Bai, bakoitzak bere prozesua egin behar du. Baina egia da, baita ere, badaudela zati batzuk izoztuta geratu zitzaizkigunak. Erratsak hartzea, hileta prestatzea... Hori guztia izoztuta zegoen; bazenekien helduko zela, baina ez zenekien noiz helduko zen ere. Hori kontu arraroa da. Baina guztiz ados; bakoitzak sortu behar du bere prozesua. Dimentsio individual hori ere hor dago.

#### **Birusa hor dago. Etorkizunera begira, protokoloak behar dira halakoak saihesteko, ezta?**

**J.M.L.:** Bai, ezustean harrapatu gaitu honek, baina gerora begira buelta bat eman beharko litzaiotke. Nola antolatu behar da hau? Zer aukera eman behar dira? Nola? Zer baldintzatzen? Eskaintza bat egiteko. Gero jendeak erabakiko du hartu nahi duen edo ez.

**I.A.:** Hori da, aukera eman, eta gero norberak erabakitzeko askatasun hori izan dezala.

**J.M.L.:** Hor badago sakoneko kontu bat. Nik ez daukat erabat garbi, baina gauza bat da erlijioa, eta beste bat da gu hiltzen garenean, edo gure senitarteko bat hiltzen denean, hor badagoela zerbait oso sakona gure eskubideen barnean dagoena. Hori bidera daiteke modu erlijiosoan, edo erlijiotik kanpo. Baina kontua ez da: «Hil da, eta kito». Ezin ukitzeko hori bada eskubideen barruan kudeatu beharreko zerbait. Hor oso gauza serio bat dago, eta modua egin behar da horri bide bat emateko eta guk erabakitzeko, baita salbuespeneko egoeretan ere. Jakina, ez bada go prestatuta, ez dago egiterik. Baina baldin badakigu berriz antzeko egoera bat etor daitekeela, presta dezagun. Badakit zaila dela, baina ezin dugu esan: «Beste-rik gabe, kendu egingo dugu». Eta hori, alde batera utzita bakoitzak zer pentsatzen duen: beste mundurik badagoen, ez dagoen... Duintasun kontua da.

**Bihar:** Leire Saez eta Amaia Urzelai hezkuntzak.